

TALDEAN AURKEZTUTAKO PROIEKTUA
(2 edo enpresa gehiago dira entitate onuradunak)

Aplikatiboan:

- Proiektua sortzerakoan “**elkarlanean**” hautatu
- “**Taldeko entitateak**” atalean, sartu entitateen datuak (liderra ezik)

LIDER ENTITATEAK aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Urteko eskaera administratiboa
- Ardurapeko adierazpena
- Partaideen eta kostuen zehaztapena
- Enpresa mota adierazpena
- Elkarlanerako akordioa (ikusi dokumentu honen bukaeran proiektuak elkarlanean aurkezteko akordioaren baldintzak)
- Kostuaren banaketa taldeko entitateen artean

Taldeko ENTITATE BAKOITZAK aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Ardurapeko adierazpena
- Enpresa mota adierazpena

TALDEAN PROIEKTUAK AURKEZTEKO AKORDIOAK JASO BEHARREKO ARLOAK

Akordioak ondoko arloak txertatu beharko ditu:

- ✓ TALDEA: Taldean parte hartuko duten enpresak
- ✓ HELBURUA: Taldean helburua/k
- ✓ ORDEZKARIA: Taldearen ordezkari gisa arituko den enpresaren izendapena, dagozkion betebeharrak betetzeko behar beste botererekin.

Enpresa ordezkari hau prozesuaren koordinatzailea izango da, horren garapenaz eta kudeaketaz arduratzeko ondorioetarako, eta bere gain hartuko ditu, halaber, prozesua ondo joan dadin beharrezkoak diren elkarriketa eta harremanen zereginak.

- ✓ KONPROMISOAK: Taldea osatzen duen enpresa bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak eta horietako bakoitzak eskatzen duen dirulaguntzaren zenbatekoa (horiek ere onuraduntzat joko dira)

Konpromiso horiek *“Partaideen eta kostuen zehaztapena”* dokumentuan jasoak daude. Beraz, alderdi hau akordioan txertatzeko eranskin horri egingo zaio erreferentzia (**Adierazpen hau erabili daiteke:**” Taldea osatzen duen enpresa bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak eta horietako bakoitzak eskatzen duen dirulaguntzaren zenbatekoa eskaeran aurkeztutako *“Partaideen eta kostuen zehaztapena”* dokumentuan jasotzen dira.”)

- ✓ SINADURAK: Taldea osatzen duten enpresa guztien sinadurak (Zuzenbidean baliozkoa den edozein bide bitartez enpresaren ordezkaria dela egiaztatzen duen pertsonagatik)